

Acenorreko langileek greba egin zuten Bideragarritasun Plangintzaren aurka

Langileen eta ertzainen arteko istilu larrienak Laudion izan ziren

Acenorrek Euskal Herrian dituen bost lantegietako langileek txandako lau orduko greba berria burutu zuten atzo, ELA, LAB, CCOO eta UGT sindikatuek deiturik. Lan uztearekin batera errepide eta trenbidez mozketak egin zituzten langileek eta istilurik larrienak Laudion gertatu ziren


DONOSTIA

Sidenorren Bideragarritasun Plangintzaren aurka eta enpresako komenioaren negoziazioaren aldeko grebaldian Acenorreko langile guztiek —3.500 gutxi gora behera— parte hartu zuten. Bizkaian eta Gipuzkoan izandako mobilizazioetan errepide eta trafiko mozketak izan ziren bitartean, istilurik handienak Laudion gertatu ziren ertzainen eta langileen artean.

Trenbidean jarritako suzko barrikaden ondorioz, Gasteiz eta Bilbo arteko Renfeko trenbidea moztuta eta bi tren geldirik geratu ziren Laudion goizeko 9,30etatik arratsaldeko 3etara. Hasiara batean trenbideran bi norabideak moztuta egon baziren ere, Ertzaintzak barrikadak baztertea lortu zuen eta Bilbotik Gasteizera trenbidea zabalik geratu zen.

Trenbideaz gainera, errepide nazionala eta Laudio errepide sarreak ere barrikadaz moztu zituzten Acenorreko langileek. Ertzaintzaren arabera, seirehun bat langilek parte hartu zuten mobilizazio hauetan.

Goizeko hamaikak aldera istilurik hasi ziren Aialako herri honetan langileen eta ertzainen artean. Barne Sailaren arabera, berrogei bat ertzain barrikadak kentzera zihoazenean,



Laudio langileek barrikadak jarri zituzten errepidean, kalean eta trenbidean.

langileek harrira eraso zieten eta polizia gomazko pilotak eta ke poteak jaurtiki zituen. Langileekin batera zenbait gazte ere istiluetan izan zirela jakin erazi zuen Ertzaintzak. Halere, Polizia Autonomoko iturriek esan zuten, atzokoan ez zen istilu aipagarririk gertatu.

BEX-EN KONTZENTRATU ZIREN

Gasteizko langileek ere manifestazio bat egin zuten arabar hiriburuko kaleetan, istilurik bat ere gertatu gabe. Basauri eta Larrondoko langileen protestak Bilboko kale nagusiraino heldu ziren. Bertan, berrehun bat langilek trafikoa moztu ziuten ordubetez Plaza Zirkular aldean.

Bilbon dagoen Banco Exterior de Españaren (BEX, Acenorren akzio-dun nagusia) bulegoen aurrean kontzentratu ziren langileak, soldakak kobratzea eskatzen zutelarik. Banketxe barruan sartu zirenean Polizia Nazionala agertu zen. Halere, bizkaitar hiriburuan ez zen iskanbilarik izan langileen eta agenteen artean.

Hernaniko mobilizazioei dago kienez, goizeko hamarrak aldera ehin bat langile abiatu ziren trenbidera eta hemendik Donostialdera jo zuten.

Acenorreko langileen mobilizazioaz gainera manifestazioa ere izan zen Laudion atzo, Aiala eskualdeko industri suntsipenaren aurka eta berri-industrializazioaren alde. Milaka

pertsona bildu ziren manifestazio honetan Alberto Ansaola Arabako diputatu nagusia izan zen.

AHV ETA ACENOR OINARRIZKOAK

Bestalde, Jon Azua lehendakariordeak ukatu egin zuen atzo Acenor eta AHV enpresek Euskalduna untziolak jarraitu zuen bide berbera jarraituko dutenik, «untziola itxi egin zen eta bi enpresa hauek produzitzen eta Euskadirentzat oinarritzko iharduerak izaten segituko dutelako». Bi enpresa hauen krisia konpontzeko hartu beharreko neurriak erabakitzeko orduan «ez dugu ezinbestean Madril lekin politika amankomun eraman behar» baieztatu zuen.

Boncolac eta Chaumes lantegiak blokatu dituzte ardi esnegileek

LETXEZAHARRETA / LEKUINE

Asteazken arratsaldean ardi esne egileek Lekuineko Boncolac lantegiaren sarrerak itxi zituzten traktur batzuekin bertarako sartzeko ataratzak debekatuz. Ostegun goizean, gauza bera egin zuten Mauleko Chaumes lantegian. Bi lantegietako buruzagitzek deramaten politika ardi esnea prezio apalegi batetan erosiz, salatu nahi zuten. Atzo egun guzian negoziaketa entseguak eta salaketak izan ziren.

Ardi esne egileen azken hilabete hauetako mugimenduak larritu dira asteazkenean Lekuineko Boncolac lantegiaren aurkako ekintzarekin. Azaroaren 6an, ULPACeko ardi esne egileek Biltzar Nagusi orokor bat egin dute Lekuinen AAA Sozietate handiaren parte den ULPAC eko enpresa bat den Boncolac izozki egiteko lantegian. Bertara gomitatuz zituzten buruzagiak ez ziren

etorri. Hori jakin orduko nekazariak Boncolaceko sartzak tratatzea erabaki zuten 14.30etan.

ULPACeko ardi esne egileek denbora berean, beste kooperatibetako esne egileei dei bat zabaldu zuten. Jarraian, Berriako produktoreek beren elkartasuna agertu zuten. Ostegun goizean, Mauleko Chaumes esnetegia blokatu zuten. Atzo goizean bi lantegien ingurura ehunka etorri ziren laborari eta esne egileak elkartasunez. Egun guzian negoziaketa entseguak izan ziren baina bart esnetegien blokatzea ostiral honetan eta «beharko den denbora guzian» erabaki zuten.

NEGOZIAKETAZ IRABAZTEKO PREMIA

Ardi esne egileak kezkatuak dira esne industriaren buruzagien erranen gatik. Frantxo Hirigoien ELBkoak azpimarratzen zuen aterabidea une honetan sal prezio on bat finkatzeko 'jatorrizko



Nekazariak Boncolac lantegiaren sarrera blokeatuz.

LUZIEN

izendatzea' dela eta bereziki honen promozioa. Horretarako ardi esne pinta bakoitzetik pagatzea proposatzen dute: 7 zentimo produktoreak, 7 esne industrialariak eta 7 podere publikoak. Zentimo 1 baizik eman nahiz industrialarietako egoera blokatzen dutela salatzen zuten.

Jacques Lapeyre ULPACeko bu-

ruzagia atzo Lonseko lantegian, Paueko ondoan, mintzatu zen afera horretaz eta egin dituen deklarapenak ziurraski probokaziotzat hartuko dituzte esne produktoreak: «Bazter nahasle batzuek, esnearen prezioaren arazotik aparte, beste helburuak dituztenek, berri faltsuak zabaltzen dituzte eta nahasketak bultzatzen».

LABURREAN

HAMABOST langile kaleratu ditu Guedan enpresak

ESK sindikatuak salatu duenez, Guedan kirol zerbitzuko enpresak 15 langile kaleratu ditu «Bilboko Udalen laguntzaz». Guedanek Udal Kirol Institutuari (UKI) monitore talde bat «irregularki utzi» zion eta langile hauek udaleko plantilan sartzeko zeukaten eskubidea erabili nahi izan zutenean, zigorrak ezarri zizkien enpresak, ESK-ko iturriek aditzera eman zutenek. Langileak azkenik Guedanetik kaleratu dituzte eta UKI langile horien ardura izatekoa zen igeriketa ikastaroa bertan behera utzi du, eta beren kontratua ezinezko bihurtu ●

ORDAINDUKOak zor publikoaren truke Nafarroan

Jose Javier Pomesek, Iruñeko Gobernuko Ekonomia eta Hazienda sailburuak atzo iragarri zuen ordaindukoak Nafarroako zor publiko bereziagatik trukatzeko prozedura. Trukaketak egiteko eskariak jasoko dituzten finantz erakundeek ordaindukoen dirua eta komisioak sartzeko kontu korrante berezia zabalduko dezakete. Gobernuko iturrien arabera, interesatuek ingesatu beharko duten dirua, trukatu dituzten ordaindukoen eta hartuko duten zor publikoaren aktiboen arteko diferentzia izango da ●

NAFARROAKO autopistek % 18,2 gehiago irabazi dute

Autopistas de Navarra S.A. (Audenasa) enpresak % 18,2ko diru sarrera igoera izan du urtearen lehen bederatzik hilabeteetan, iazko epe berean izandako emaitzekin alderatuz. Diru sarrerak 1.282,2 milioi pezeta-koak (71,24 milioi libera) izan dira epe honetan ●

ERRIOXAKO ardo produkzioa ona da aurten Araban

Errioxa Jatorriko ardo produkzioa ona izan da aurten Araban. Guztira 220 milioi kilo mahats biltzea espero da eta 160.000 milioi litro ardo egingo dira. Paulino Corcuera Arabako Nekazaritza diputatuak esan duenez, herrialde honek Errioxa jatorrizko izenean izango duen partaidetza ohizko % 30koa baino txikiagoa izango da, «baina ardoa kalitate onekoa izango da» ●